

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza ^{info}

Asteartea, 2013ko apirilaren 16a. IX. urtea. 2.577. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Zumalakarregi kaleko batzokia «zekenkeriak» itxi duela salatu du EAJk

Tolosako EAJk Aberri Etxea betirako itxi izana gaitzetsi du; 'Zurekin' aldizkariaren bidez ezagutaraziko dute batzoki berria **02**

Irazu, Saralegi eta Alkizalete aizkora txapelketatik kanpo

Asteasun eta Leitzan jokatu dituzten nagusien eta 23 urtez azpiko mailako kanporaketetan ez dute aurrera jarraitzeko txartelik lortu **07**



Leitzan jokatu zen herenegun txapelketako laugarren jardunaldia. J. AMONARRIZ



MIREN IRIBOLA

→ **Parisera joateko aukera.** Amasa-Villabonako Oria Merkatari Elkarteak, 'Erosi hemen, eta itzuli Parisera' lelopean udaberriko kanpaina jarri du martxan. Maiatzaren 29ra bitarte luzatuko da, eta elkarteak dendetan erosten duten bezeroek bi lagunentzako Pariserako bidaiaren zozketan parte hartuko dute. **03**

Huyck Wangner-eko langileek ez dute onartu eskaintza

Langile batzordeak ez du zuzendaritzaren eskaintza ulertu; «bidegabekeria» dela salatu dute, eta enplegua defendatzeko borrokan jarraituko dutela adierazi dute **03**

Tolosako Auzitegiak bertan behera utzi du etxe kaleratze bat

Tolosan egitekoak ziren etxe kaleratzea, martxoan; «pozik» agertu da Stop Kaleratzeak plataforma **02**



HITZAK harpidedunentzat **2 sarrera pare** ditu

VI. ÑAÑARRI RALLYESPRINTA

Apirilak 20 • Larunbata
Irteera: 15:00etan Alegiatik Amezketara

Zozketan parte hartzeko deitu **943 65 56 95** telefono zenbakira



sarrerak





Juan Ramon Baztarrikak eta Begoña Tolosak eman zituzten batzokiaren inguruko azalpenak agerraldian. I. URKIZU

Zumalakarregi kaleko batzokia betirako itxi izana salatu du Tolosako EAJk

‘Zurekin’ aldizkariaren ale bereziaren bidez ezagutaraziko du alderdiak, Inpernu kaleko batzoki berria

Itzea Urkizu

Tolosako EAJko kideek, Zumalakarregi kaleko batzokia itxi izana salatu dute. Auzi honen inguruko azalpenak emateaz gain, Inpernu kalean zabaldu duten batzoki berria ezagutzera emango duen *Zurekin* aldizkariaren ale berezia aurkezteko ere baliatu zuten, agerraldia.

Batzoki ohia uztea «Tolosako abertzale guztientzat oso mingarria da», jeltzaleen arabera; hala nabarmendu zuen, Juan Ramon Baztarrikak: «80 urte luzeko ibilbidearen ondoren, zekenkeriak eta diruzalekeriak lortu dute Francoren diktadurak lortu ez zuena. Abertzaletasunaren hedatze garaian hainbeste ilusio eta lanaren ondorioz Eusko Alderdi Jeltzaleko kideek Zumalakarregi

kalean eraikitako Aberri Etxea betirako itxi behar izan da».

Kronologia iruditan

Agerraldian elkartzuriko EAJko kideek, Tolosako Zumalakarregi kaleko batzokiaren historia azaldu zuten, *Zurekin* aldizkariak jasoko duenarekin bat eginez.

Modu honetara, 1932an kokatu dute batzoki ohiaren sorrera. Jeltzale tolosarren arabera, urte hartan batzokia eraikitzeko obra baimena lortu zutenean, garai hartako Tolosako EAJren agintariak, Ureta Higiezinen Elkarteak sortu zuten: «Garai hartako egoera politikoa medio, ez zen gomendagarria eraikina EAJren izenean jarzea, eta lur eremua nahiz Tolosako Batzokia higiezinen elkartearen izenean jarri zituzten. Finean, EAJren ondasuna gordetzeaz gain, babes legala emateko asmatutako tresna bat zen Ureta».

1936ko gerran Tolosako Batzokia konfiskatu zuten, eta jada Frankismoa pasa eta gero berrindartu nahi izan zuten Ureta Higiezinen Elkarteak: «Ureta Higie-

zinen Elkarteak berrindartzeko asmoz, elkarteak sortzaile akzioaren ondorengo eskuetan utzi zuten».

Juan Ramon Baztarrikak eta Begoña Tolosak nabarmendu zuten, «EAJ ez da urte hauetan guztietan, Ureta Higiezinen Elkartearen erregistro formalta-

Inpernu kaleko batzoki berria ekaina inguruan inauguratuko dute ofizialki

sun kontuetan sartu, eta tamalez, hautsia eta saldua izan da batzokia berrindartzeko ahalegina; espekulazio interesak eta etekin pertsonalak lortzeko beren arbasoen ahalegina ahaztu eta alboratu dute», gaitzetsi zuten.

Horrela beraz, Inpernu kalean dago, duela bi hilabetez gerotzik, batzoki berria: «Lekukoa jaso dugu, eta batzoki berri honetatik lanean jarraituko dugu». Inaugurazio ofiziala, gainera, San Joan jaian inguruan burutuko dute.

• tolosa@hitza.info

↓ Iragarki laburrak

LAN BILA

Etxeko lanak. Etxeko lanak egin, haurrak zaindu edota bestelako lanetarako, esperientziadun eta gidatzeko baimena duen emakumeak bere burua eskaintzen du. 600 52 21 33.

Autobus gidaria. Edozein lanetarako, esperientziadun eta autobus gidatzeko baimena duen gizonak bere burua eskaintzen du. 677 88 42 78.

Tolosako Auzitegiak etxe kaleratze bat gelditu du Tolosan

Stop Kaleratzeak plataformak «zuhurtasun eredutzat» hartu du Tolosako Epaitegiaren erabakia

Erredakzioa

Tolosako Auzitegiak bertan behera utzi du iragan martxoan Tolosan egitekoak ziren etxe baten enkantea. Etxe kaleratzeen auzian, Espainiako araudiak herritarrek nahikoa babesik gabe uzten dituela ebatzi zuen Europako Batasunak iazko azaroan, eta argudio hori baliatu du auzitegiak, enkantea eteteko.

Gipuzkoako Stop Kaleratzeak plataformak jakinarazi duenez, pasa den martxoaren 19an erabaki zuen Tolosako Auzitegiak, enkantea bertan behera uztea; izan ere, martxo amaieran ziren enkantea egitekoak.

Besteak beste, etxe kaleratzeak

egiteko Espainiako araudia, eta erabiltzaileen eskubideak babes-teko Europako Batasuneko gidalerroa ez direla bateragarriak ebatzi zuten, eta horixe argudiatu du auzitegiak. Era berean, auzitegiak azaldu du, etxegabetze prozeduran egin beharreko enkanteak «atzera bueltarik gabekoa» izan behar lukeela, eta, hori egin aurretik, hipotekak abusuzko klausularik ote duen aztertu beharko litzatekeela.

Stop Kaleratzeak plataforma «pozik» azaldu da erabakiarekin, eta «zuhurtasun eredutzat» jo du. Hori dela eta, Lurralde Historikoko dauden epaile dekanoeekin bilera bat egiteko eskaera egingo dute: «Tolosan gertatu den bezalaxe, antzeko prozesuak bizi dituzten epaitegietan horrelako erabakiak hartzeko eskaera luzatuz».

Azkenik, «prozedura hauek, Europar Auzitegiaren ustez, legez kontrakoak» direla gaineratu du plataformak.

• tolosa@hitza.info

→ Laburrak

Federatu txartela egin dezakete patinatzaileek

KIROLA › Dagoeneko bada, patinatzaileentzat federatu lizentzia lortzeko aukera. Maiatzaren 2ra bitarte Usabal kiroldegiko 1.3 bulegoan izango dira, astearte eta ostegunero, 19:00etatik 20:00etara, Iristakal taldeko kideak.

Sanjoanetako jai batzordea, bihar

GIZARTEA › Jai batzordearen bilera izango da, bihar, 19:00etan, sanjoanak prestatzeko, Abastos eraikinean.

Merkatu txikia Amarotzen, Nikaraguaren alde

GIZARTEA › Amarozko auzo elkarteak Nikaraguaren aldeko merkatu txikia antolatu du. Ostiralera bitarte Amarozko auzo lokalatan izango dira, 16:00etatik 20etara bitarte.

Jakoba Errekondo Urkizu auzoan izango da

GIZARTEA › Datorren larunbatean, 15:30ean, Jakoba Errekondo landareetan aditua izango da Urkizuko Alurtxiki elkartearen.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Parisera joateko aukera dute Oria Merkatarri Elkarteko dendetako kontsumitzaileek

Maiatzaren 29ra bitarte, Amasa-Villabonako denda hitzartuetan erosteagatik zozketan sartzeko aukera dago

Mikel Iraola Amasa-Villabona

Erosi hemen, eta itzuli Parisera. Lelo horrekin aurkeztu zuten atzo Amasa-Villabonako Oria Merkatarri Elkartek atzo bertan abian jarri zuten udaberriko kanpaina.

Kitilo Fernandez, elkarteko lehendakariak, Consuelo Gomez, lehendakari ordeak, eta Tolosaldea Garatzeneko merkataritza di-

namizatzaileak, Agus Adurizek, hartu zuten parte Lehiberri zentroan egindako aurkezpen ekitaldian.

Joan den urtean, *Erosi hemen, eta Paris ikusiko duzu* lelopean egin zuten kanpaina «arrakastatsua» ardatz hartuta, errepikatzea erabaki dute aurten ere. Hori dela eta, bertako salmenta sustatu, eta erosleen fidelotasuna eskertzeko, gastu guztiak ordainduta, bi lagunentzako Parisera bidaia bat zozkatuko dute.

Zozketan parte hartu ahal izateko, elkarteko kide den dendetako batean kontsumitzeagatik banatuko den papertxo bat bete beharko da. Bertan, izen-abizenak

eta telefono zenbaki bat eskatuko dira, eta nahitaezkoa izango da datu guztiak betetzea, hori betetzen ez duten papertxoak baliogabetu egingo baitituzte.

Atzo hasi zen 2013ko udaberriko kanpaina hau, eta maiatzaren 29ra bitarte luzatuko da. Egun horretara arte izango da zozketan parte hartzeko aukera. Irabazlea, baina, hurrengo egunean, maiatzaren 30ean jakinaraziko dute, 13:30ean Villabonako Berdura Plazan egingo den ekitaldian.

Irabazlearekin momentuan bertan jarriko dira kontaktuan, eta lortu ezean, beste hiru aldiz saiaturiko dira.

● tolosaldean@hitza.info



Kitilo Fernandez, Consuelo Gomez eta Agus Aduriz, atzo Lehiberri. M.IRAOLA

Huyck Wangner-eko langileek ez dute onartu enpresaren eskaintza

«Bidegabekeria handi» honen aurka eta euren enpleguak defendatzeko borrokan jarraituko dutela adierazi dute

Iñigo Terradillos Zizurkil

Zizurkilgo Huyck Wangner enpresako langileek ezezkoa eman die zuzendaritzak egindako azken eskaintzari, eta euren lanpostuak defendatzeko «borrokan» jarraituko dutela azaldu dute.

Bigarren Enplegu Erregulazio Espedientea sartu zutenetik hirugarren bilera izan zuten iragan ostiralean lantegiko langile ba-

tzordeak eta enpresaren zuzendaritzak. Mikel Zabaleta ELA sindikatuko ordezkariak azaldu duenez, «zuzendaritzak estreinakoz onartu zuen 75 langile kaleratzeko espedientea ez dagoela Zizurkilgo lantegian datuetan oinarrituta». «Sektorea krisian dagoela, eta taldea bere osotasunean egoera txarrean dagoenez, enpresa osoa kontua hartuta hartu dutela erabakia esan digute», adierazi du Zabaletak.

Enpresak kalte ordaina 40 egunera igo du, 18 hilabeteko mugarekin. Halaber, enpresak beste lurraldeetan dituen ordezkarietatik 13 langilerentzako lanpostua bermatzen zuela azaldu zuen, eta horientzat erraztasun handiagoak

agindu ditu. «Gure iritziz, enpresa honek irabazten duen dirutza eta hemendik eman duten diru pila kontuan hartuta, hori husteria da», azaldu du Zabaletak.

Enplegu Erregulazio Espedientearen kontsulta epea apirilaren 25ean bukatuko da. Hori murrizteko aukera bakarra bi aldeak adostasuneran iristea litzateke. «Egun horretara iritsi bitarte ez badago adostasunik, kaleratzeak komunikatuko lituzkete, eta ondoren guk salaketa jarriko genuke», dio Zabaletak. «Gero eta informazio gehiago izan are gehiago konturatzeko gara bidegabekeria handia izan dela dena, eta langileek oso argi dute euren lanpostuen defentsan jarraituko dutela borrokan».

Gutuna

Osasuna bermatzearen

Hurbiltzen ari da Iruran hondakin bilketaren sistema aldaketa. Udara baino lehen, gaikako bilketan pauso bat gehiago eman go dugu iruratarrok: kristala, plastikoa, papera, pilak, olioia eta jantziak berezita biltzen arituz gara azken urteetan, eta orain organikoa ere banatzen hasiko gara. Horretarako, auzo konposta (dagoeneko Irurako 50 familiek egin duten aukera) eta atez ateko bilketa sistema erabiliko dira, oraingoz, emaitzarik onenak ematen ari diren sistemak.

Sistema horiekin, sortzen ditugun hondakinen %80a baino gehiago birziklatuko dugu eta birziklatu ezin den zabor kopurua, errefusa, %20 baino gutxiago izango da (Usurbil, Hernani, Oiartzun edo Antzuolako datuen arabera); bosgarren edukiontzia sistemarekin, hondakinen %75a sailkatu gabe botatzen jarraitzen du jendeak, eta, ondorioz, ezin da birziklatu (2012an, Aretxabaletan jasotako datuak dira).

Azken asteetan, zabor-polttsak azaldu dira Irurako hainbat etxeetako balkoietan protesta modura. Protesta ekimen horrek arduratu egiten gaitu. Guztiz errespetagarria iruditzen zaigu, baina ez gaude ados beronekin. Edozein aldaketa prozesuk zalantzak sortzea logikoa iruditzen zaigu, eta jendeak bere iritzia eta desadostasuna adieraztea ere, positiboa. Baina gu aldaketa hau frogatzearen aldekoak gara, sistema berriari aukera bat ematearen aldekoak.

Gure ustez, Gipuzkoan gai honi buruzko eztabaida pizten eta puzten aritu direnak zenbait gezur zabaltzen aritu dira azken hilabete eta urteetan. Izan ere, auzo konposta eta atez ateko bilketa sistema ez dira beste sistema batzuk baino zikinagoak; ez dute usainik zabaltzen (kutxak ordu gutxi batzuk bakarrik egoten dira zintzilik); ez dira garestiagoak (herriak hondakin gutxiago sortzen du eta ondorioz gutxiago ordaindu behar du

zabortegetan); ez dira itsusialgoak (Iruran denontzako berdinak diren kubo batzuetan aterako dira hondakinak, ez basurra-poltsetan!); ez dira deserosoagoak (bosgarren edukiontziaekin berdin-berdin banatu behar da organikoa); etab. Lehen aipatutako Gipuzkoako lau herri horietan urte batzuk badaramatzate atez ateko bilketa sistemarekin eta ez da arazo berezirik gertatu.

Zenbaiten ustez, arazo nagusietako bat sistema berriak inposatu egin direla da. Gure ustez ere proposagoa litzateke adostasun maila handiagoarekin ezartzea aldaketa. Baina oposizioak zuten Hondakin Planaren erantzun herriarekin kontsultatu, eta Iruratik 20 kilometrorra, Zubietan hain zuzen, makro eruste planta bat jaretzea aurreikusten zuten legealdi honetan bertan. Ez da kontsentsuak lantzeko denborarik egon beraz, ez eta horretarako borondatearik ere oposizio alderdien aldetik.

Gure ustez, jokoan dagoena Irurako eta Gipuzkoako ingurumena eta herritarren osasuna da. Talde ekologista nagusiak (Ekologistak Martxan, Greenpeace, Eguzki) auzo konposta eta atez ateko bilketa sistemaren alde agertu dira. Horregatik, Irurako Udala zoriondu nahi dugu ausarta izan delako, eta gaur egungo eta etorkizuneko iruratarren eta gipuzkoarren osasuna eta bizitza kalitatea lehenetsi dituelako. Gure babesa adierazi nahi dugu aipatutako hondakin bilketarako sistema berriekiko, norabide egokian emandako pauso bat dela iruditzen baitzaigu.

Orain, atez ateko bilketa sistemarekin daukagu aukera ekologia eta Garapen Iraunkorra bezalako hitzak praktikan jaritzeko! Guretzako ere ohitura aldaketa suposatuko du honek, baina onerako, gure gizarte eta naturaren eta gure oinordekoen onerako.

Esfortzuak merezi du!

■ **Irura Zero Zabor.**





TOLOSALDEA GARATZENEN LANBIDEREKIN LANKIDETZAN KANPO-MERKATARITZA ETA MARKETING-INTERNAZIONALAREN INGURUKO KURTSOA MARTXAN JARRIKO DU DOHAINIK ESKUALDEKO 15 LANGABETURENTZAT.

Profila: Lizentziatura, ingeniari eta arkitektura. Enpresen-administrazio eta -zuzendaritza, ekonomia, eta zuzenbide-ekonomikoko lizentziatura, eta ingeniari ikasketadunek lehenetsia izango dute.

Baldintzak: Langabezia egotea. Ingelesko ezagutza ertaina eta profil komertziala. Beste hizkuntzen ezagutza baloratuko da. Eskualdeko biztanleek lehenetsia izango dute.

Kurtsoko egutegia eta ordutegiak: maiatzaren 2tik irailaren 30era, 08.00etatik 15.00etara bitartean.

Izena emateko: **TOLOSALDEA GARATZEN, LEHIBERRI** Zentroa. Apataerreka Industriegunea. **TOLOSA**. Tfno. 943 65 45 01

Epea: 2013ko apirilaren 24a arte.

Tourette sindromea ezagutzera emateko Tolosako Usabalen elkartu dira; Ibarrako Txiribitukoek eta Asteasuko Matxintxuloek urteurrenak ospatu dituzte.

Mahaiaren inguruan bilduta

Asier Imaz

Lau bazkari ospatu ziren larunbatean Tolosaldean. Hainbatetik hiruak, jai giroan zuten ardatz, eta laugarrenak, aldarrikapena. Azken hau, Tolosako Usabal kiroldelagino ospatu zen, eta bertara, 80 lagun inguru joan ziren. Tourette sindromea ezagutzera emateko helburua zuen bazkaria, eta Afesta elkarteak antolatu zuen. Sindrome hau gaitutasun ez ohikoaren barruan sartuta du FEDER Espainiako gaitutasun ez ohikoen federazioak. Eli Agirretxe, Afesta elkarteko kide tolosarraren esanetan, sindromea zer den azalzeko gaitze bakarra aztertzen beharrikoa litzateke. «7K simple edo konplexuak izan daitezke. Gaitz neurologikoa da, eta oihiko bizi-moia egiten baldin badute ere, egoera batzuen aurrean arreta falta, jarrena arazoak edota hipenakibitutasun erakusten dute».

Tourette sindromaren inguruan lanean dabiltzanei laguntzeko oinomenak hasi besterik ez dira egiten, eta bazkaria josteko naberririk izan ez zutenek, hadituzte beste hainbat laguntza bide. Bat, hainbatetik errotea izan daiteke, eta bestea, Kutxabank-en zabaldu duten kontu korrontean ekarpena egitea.

Gaitutasunaren inguruko informazioa nahituenek, www.facebook.com/TouretteEuskaadi orrialdean aurki dezakete, edo afesta@gmail.com helbidera idatzita.

Usabalen bezala, Ibarran ere mahai inguruan elkartu ziren herritarrek larunbatean, kasu honetan, ordea, Txiribitu Aisialdi Taldearen urteurrena ospatzeko asmoz. Herriko plazan kokatu zuten jangela Txiribitukoek, eta 160 bazkaltzar inguru elkartu zitzaizkien. 30 urte bete ditu Ibarrako aisialdi taldeak, eta data berezi horren harira, aste guztian zehar hainka ekimen antolatuta dituzte. Larunbatetako, ospakizun horien azken eguna izan zen. Eguna diarenekin jarri zuten martxoan Txiribitukoek eta ondoren, mendia egia zuten txangoa. Herrira itzaltzean, eguerdian, triki poteoan

nehari katu zuten. Ibarran, Plazara itzultzean, hainbat boluntariok esker, bazkaria zain zuten. Eguna Dinebi Danba perkusio taldearen emandakizunak argutu zuten.

Txiribitukoek ez ziren izan urteurrena ospatu zuten bakarrak. Asteasuko Matxintxulo Gaztetxeak duela urtebete zabaldu zuten ateak, eta larunbatean, data berezi hori ederki gozoratu zuten. Berio bazkarian, Unai Mendizabal eta Aduar Gorostidi aritu ziren bertsoetan, bazkalostearen, a. MAZ.



Tolosa Tourette sindromea ezagutzera emateko asmoz bazkaria egin zuten, larunbatean. a. MAZ.



Amezketan Ugarteko suztaarak elkartearen, sagardotegitik itzulia egin ostean. HITZA.



Ibarra Txiribitu Aisialdi Taldeko kideek bazkaria egin zuten larunbatean, 20. urteurrena ospatzeko. a. MAZ.

Ikastetxeak eta olimpiadak Irurran, larunbatean, II. Olimpiada Herrikoiek jokatu zituzten. Paratideak lau taldetan banatu zituzten, eta hainbat hiru gaitzen artean osatuak izan ziren. Hel duak beraz, talde bakarrarekin aritu ziren. Irurarrak goiz nahiz arratsko ibili ziren jolasetan, eta tartean, bazkaria egin zuten.

Hirukideko 44 ikasle eta hiru irakasle, batxilergoko lehen mailakosak, Poloniatik iritsi ziren larunbatean, bi aste egonaldia egin ondoren. Urtero bezala, bidaiaren helburua elkarruketa izan zen. Ikastetxetik azaldu dutenez, Poloniara iritsi baino lehen Berna eta Praga bisitatu zituzten, eta Irutxetan, Berlin eta Paris Penionako egonaldia Pozmanen izan zen, eta bertako ikaslearen etxetean egon ziren ikas. Elkarruketan Varsovia eta Auschwitz kontzentrazio-esparruan ezagutu zituzten, besteak beste.

Samarietakoek ere irteera egin zuten, baina egun bakarreko. Igandeen, Urkizura joan ziren 100 lagun inguru, eta Lizardien omeneko monolitoan gela diardia egin ondoren, ikasle, irakasle eta gurasoak bazkalteko orduan iritsi ziren Tolosako auzora. Indarrak berritu ostean, jolasen ibiliri ziren Urkizun.



Asteasu Matxintxulo Gaztetxearen lehen urteurrena jai giroan ospatu zuten asteasuarrak, larunbatean. Unai Mendizabal eta Aduar Gorostidi aritu ziren bertsoetan, bazkalostearen, a. MAZ.



Irura II. Olimpiada Herrikoien barruan, beisbolean ibili ziren. a. MAZ.



Tolosa Hirukideko ikasleek Poloniara izan dira, elkarruketan, Irudian, Auschwitz-en atzetan. HITZA.



Irura II. Olimpiada Herrikoien barruan, beisbolean ibili ziren. a. MAZ.



Tolosa Samarniego ikastetxeiko ikasle, irakasle eta gurasoak Urkizura joan ziren igandeetan. Lizardien monolitoaren ondoan, eta Urkizun bertan, jolasen ibili ziren, eguraldi ederra lagun zutelak. HITZA.

Harpide egiteak saria du

Egin HITZaren harpidedun apirilaren letek maiatzaren 31ra arte, eta jaso

OPARI

Basoa banaketak eskaintako 3 ardo botila

eta

Harpidedun guztien artean

Areta Etxea nekazal turisismoan bi pertsonentzako asteburu baterako egonaldia ZOZKATUKO DUGU

Harremanetarako: 902 82 02 01 harpidetza@hitza.info

hitza

Kirolak

↓ **Kirol emaitzak**

ARETO FUTBOLA

HIRUGARREN MAILA
26. jardunaldia
Ibarra-Buruntza 5-1
Laskorain-Bilbo 0-4
Egintza-Goierri 3-6
Tolosala-Santurtzi 2-5

Sailkapena

1. Aurrera	62p
2. Ibarra	61p
3. Bilbo	57p
4. Santurtzi	55p
5. Goierri	47p
6. Tolosala Hirukide	41p
7. Laskorain	38p
8. Inter Eder	36p
9. Soloarte	32p
10. San Jorge	32p
11. Mallabia	29p
12. Zarautz	26p
13. Egintza	25p
14. Buruntzaz	25p
15. Sestao	16p

Hurrengo jardunaldia

Aurrera-**Ibarra**
 Inter Eder- **Egintza**
 Goierri-**Laskorain**
 Bilbo-**Tolosala Hirukide**

AIZKORA

2013 URREZKO AIZKORA BANAKAKO AIZKORA

TXAPELKETA, URREZKO MAILA

Leitzan
 Kañamares III.ak, Larrañagak eta Jauregik lortu dute txapelketan aurrera egitea.

23 URTEZ AZPIKOAK Asteasun

Kañamares III.ak, Rodriguez II.ak eta Vicente II.ak lortu dute aurrera egitea.

FUTBOLA

ERREGIONAL OHOREZKOAK

28. jardunaldia
Touring-Tolosa 0-4

Sailkapena

1. Oiartzun	63p
2. Hernani	59p
3. Real Union	56p
4. Aretxabaleta	51p
8. Tolosa	41p

Hurrengo jardunaldia

Tolosa-Aloña Mendi

PILOTA

LEHEN MAILAKO BINAKAKO PILOTA TXAPELKETA
Finalerdietako ligaxka
 Olaizola-Zabala 22
 Bengoetxea VI- Beroiz 15

BERRIA TXAPELKETA

Kadeteak
 Peña-Urdanpilleta (AS) 22
 Ruiz- Saratxagaz 4
Jubenilak
 Labaka-Imaz (Aurrera Saiaz) 22
 Arregi-Murga 3
Seniorrak
 Artola-Telletxea (AS) 0
 Gerrero-Cueva 22

BETERANOEN XARE

TXAPELKETA
 A. Lasa-Cosio (1) 12/15/9
 I. Caballero-I.Artola (2) 15/11/10
 Morcuende-I. Lasa (1) 12/15/5
 J. Balardi-I. Yurrita (2) 15/12/10

SHARE ELKARTEA SARIA

J. Lopetegi-J. Apeztegia	40
A. Gutierrez- J. Larrarte	37
A. Lizaso-D. Vinuesa	40
F. Santano- A. Artola	18

Hilaren 21ean, 16:30ean

Beteranoen txapelketa

finala:
 I. Caballero-I. Artola
 J. Balardi-I. Yurrita

Share Elkartea saria finala:

J. Lopetegi-J. Apeztegia
 A. Lizaso-D. Vinuesa

SASKIBALOA

LEHEN MAILA
25. jardunaldia
Bide Bide 75
 Asesoria SAF 53

Sailkapena

1. Asesoria SAF	18-7
2. Askartza	18-7
3. Mikeldi	17-8
4. Lizuan	16-9
5. Atletico Sn Sn	16-9
6. Bide Bide Donostia	16-9
7. Arrasate	14-11
8. Tabirako	13-12

Hurrengo jardunaldia

Lagunak
Bide Bide Donostia



Aurrera Saiaz taldeko arduraduna, Luis Galarraga, Berria Txapelketan parte hartu zuten pilotariekin. JONE AMONARRIZ

Buruz buruko txapelketan pentsatzen hasia dago Oinatz Bengoetxea leitzarra

Aurrera Saiazek erraz gainditu du Amurrio Berria Txapelketan, partida bat galdutuz eman badiote ere

ko banakakoan pentsatzen jarria dago. Izan ere, laster da hastekoa txapelketa, baina Bengoetxeak zerrrendaburu izaki aurrerago ekingo dio lehiari.

Herenegun, Olaizolak maila eta erremate bikaina erakutsi zuen. Baita Zabalak ere, eta Bengoetxea eta Beroiz mendean hartu zituzten. Azken hauek deseroso aritu ziren partidaren zati handi batean. Bengoetxeak ez zuen bere egunik onena izan errematean, eta 20-9ra arte tanto bakarra zuen egina. Partidaren azken txanpan susperraldi modukoa izan zuen, eta saiatu zen, baina beranduegi zen, eta aurkariak iritsi ziren 22ra azkarren.

Aurrera Saiaz, aurrera

Berria Txapelketan Aurrera Saiazek garaipena lortu du Amurrioren aurka, eta final laurdenetan Doneztebeiko Erreka taldearen aurka jokatu du. Tolosako Beroitibar pilotalekuan jokatu zuen

Aurrera Saiazek Amurrioren aurkako neurraketa, eta hiru partidak irabazi zituen. Hala ere, utzitako hiru pilotariekin jokatu zuenez, eta txapelketan gehienez bi egon daitekeenez, partida bat galdutuz eman zitzaion, 0-22ko markagailuarekin. Beste bi partidetan abantaila handia lortu zuenez, kanporaketa gainditu zuen Aurrera Saiazek.

Kadeteetan Jon Ander Peñaik eta Ander Urdanpilletak 22-4 irabazi zuten. Jubeniletan, Peru Labaka eta Xanet Imaz 22-3 gailendu ziren, eta nagusietan Iñaki Artola eta Xabier Telletxeak 22-5 irabazi zuten. Azken partida hau eman zioten galdutuz Aurrera Saiazeko. Hiruretan Tolosaldeko taldearen pilotariekin nagusitasuna erakutsi zuten eta arabarrak tanto gutxi batzuk egin ahal izan zituzten. Aurrera Saiazeko atzelariek ez zuten lan handirik izan, eta aurrelariek tanto ederrak egingo aukera izan zuten.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN

hilberriak urteurrenak eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

ESKELAK • 18:30ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

Irazuk, Saralegik eta Alkizaletek ez dute lortu aurrera jarraitzeko txartela



Jokin Alkizalete asteasurra, eskuinean, Leitzan jokaturako kanporaketaren une batean. JONE AMONARRIZ

23 urtez azpikoen mailan, Alkizaletek eta Saralegik ez dute aizkora txapelketan aurrera egiterik lortu

Iñigo Terradillos

Julen Kañameres, Arkaitz Jauregi eta Mikel Larrañaga aizkolariek lortu dute Urrezko Aizkora hurrengo kanporaketarako txartela. Beraz, herenegun Leitzan lehiatu ziren Jon Irazu zizurkildarra, Eneko Saralegi leitzarra eta Jokin Alkizalete asteasurak ez dute aurrera egiterik lortu.

XV. Urrezko Aizkora Txapelketako laugarren jardunaldia hartu zuten Leitzako Amazabal pilotale-

kuak. Bertan hamabi aizkolarik hartu zuten parte, eta enbor bat mozttera lehiatu ziren.

Lehen faseko irabazleek hirugarren fasea jokatu zuten, eta galtaileek bigarren fasea. Azken hauek aurrera egiteko azken aukera zuten. Fase honetan, Kañameres III.a, Eneko Otaño eta Oihan Larretxea sailkatu ziren. Ezustea eman zuen aizkolarietako bat Jon Irazu zizurkildarra izan zen. Garaipena lortzeko faboritoetako bat zen, baina ezin izan zuen lehen fasea irabazi, ezta bigarrena ere.

Hirugarren fasean, Alkizalete II.ak Zaldúa menderatu zuen, Arkaitz Jauregik Eneko Saralegi eta Mikel Larrañagak Iban Resano. Laugarrenean, Kañameres II.ak irabazi zuen Xabier Zalduaren aurka, Eneko Otañok Iban Resa-

no garaitu zuen, eta Oihan Larretxeak Saralegiri irabazi zion. Finalean, bestalde, Kañameres II.a Alkizalete baino gehiago izan zen; Arkaitz Jauregik Oihan Larretxea garaitu zuen eta Mikel Larrañagak Eneko Otaño.

23 urtez azpikoak, Asteasun Asteburu bete izan da Tolosaldean eta Leitzaldean aizkolarri dago-kionez. Leitzan Urrezko Aizkora izan zen lehen fasea irabazi, ezta bigarrena ere. Leitzan Urrezko Aizkora izan zen lehen fasea irabazi, ezta bigarrena ere. Leitzan Urrezko Aizkora izan zen lehen fasea irabazi, ezta bigarrena ere. Leitzan Urrezko Aizkora izan zen lehen fasea irabazi, ezta bigarrena ere.

Asteasun ere 12 aizkolarri lehiatu ziren, lau multzotan banatuta,

eta horien artean ziren Alkizalete II.a asteasurra eta Eneko Saralegi leitzarra. A multzoan Kañameres III.a izan zen lehena Kañameres IV.a bigarren eta Naredo azkena; B multzoan, Rodriguez II.a izan zen lehenengoa, Vicente II.a bigarren eta Larrea III.a hirugarren; C multzoan Saralegi gailendu zen, Etxeberría II.a geratu zen bigarren, eta Irazabal hirugarren; eta D multzoan, Eneko Otaño izan zen lehenengoa, Alkizalete bigarrena eta Kortxero hirugarrena.

Hurrengo fasea lehenengo bi sailkatuen artekoa izan zen. Hemen, Otañok Kañameres IV.ari irabazi zion; Kañameres III.ak Alkizaleteri; Rodriguez II.ak Etxeberría II.ari; eta Vicente Saralegiri. Hain justu, lau irabazleak sailkatu dira hurrengo saiorako.

Otaegi eta Senosiain, nor baino nor, igandean

Tolosako zezen plazan izango da apustua; aizkolarri bakoitzak 20 kanaerdiko ebaki beharko ditu

I. Terradillos Zizurkil

Tolosako zezen plaza herri kirol desafio berri baten lekuko izango da datorren igandean, hilaren

21ean. Hain zuzen ere, Olagueko (Nafarroa) Antonio Senosiain eta Joseba Otaegi zizurkildarra ariko dira nor baino nor: 20 kanaerdiko ebaki beharko ditu alde bakoitzak, eta 6.000 euro jarri dituzte jokoa. Aizkolarri bakoitzak eraman beharko du egur erdia.

Desafioa 12:00etan hasiko da, eta bertaratutako nahi dutenek, sarerak Zizurkilgo Iriarte jatetxean eta Azeitiko Mendizabal jatetxean eskuratuko dituzte.

Katowiceko Txapelketa lortu du Arruabarrenak

Tenista tolosarrak binakako eran garaikurra lortzen duen lehendabiziko WTA txapelketa da

I. Terradillos Tolosa

Lara Arruabarrena tenista tolosarrak, Lourdes Dominguez gali-zarrarekin batera, Katowiceko

(Polonia) txapelketa irabazi du. Modu horretan, binakako lehendabiziko WTA txapelketa bat eskuratu du Arruabarrenak. Raluca Olaru errumaniarra eta Valeria Solovyeva errusiarraren aurka jokatu zuten finala, eta 6-4 eta 7-5eko emaitzarekin irabazi zuten partida.

Lara Arruabarrenak lortua du aurten banaka WTA txapelketa bat, Calin (Kolonbia), hain zuzen ere.

Maddi Amiano judokak Espainiako Iparraldeko irabazi du

Tolosako judoek maila polita eman dute, bai Espainiako Txapelketan, bai eta Gipuzkoakoan ere

I. Terradillos

Espainiako Iparraldeko junior mailakoan Judo Txapelketan lehen postua lortu berri du Maddi Amianok. Ondorioz, Espainiako Txapelketan lehiatzeko txartela lortu zuen altzotarrak, baina brontzea lortzeko lehia batera geratu zen.

Beñat eta Maddi Amianok jokatu zuten Iruñean izan zen Espainiako Iparraldeko Txapelketan. Bertan, Nafarroa eta Errioxa eta Aragoiko judoken aurka egin beharra izan zuten. Beñat Amianok ezin izan zituen kanporaketak gainditu. Maddik, berriz, oso maila ona erakutsi zuen, lehen postua lortuz, eta horrela Espainiako finalean lehiatzeko txartela eskuratu.

Espainiako finala Madrilen jokatu zen. Maddi Amianorentzat zazpigarren aldia zen gisa horretako finala jokatzeko zuena. 15 aurkari zituen, eta lehen kanporaketa gainditzea lortu zuen Amianok. Bigarrenean, ordea, Kantabriako judokaren aurka galdu zuen. Ez zen, baina, final zortzirenetan geratu, bigarren aukera bat izan baitzuen. Bigarrenean saiatu zuen, baina brontzea lortzeko borroka batera geratu zen.

Infantil mailakoak, bikain

Bestalde infantil mailakoan Gipuzkoako Txapelketa jokatu berri da baita ere, eta bertan lau tolosarrek maila polita eman dute. Laurek lan handia egin zuten lehen bi postuetako bat lortu, eta horrela Euskadiko Txapelketarako txartela lortzeko.

Enara Amianok hirugarren postuarekin konformatu beharra izan zuen, 48 kiloetan. Intza Egizabalek bigarren postuan sailkatzea lortu zuen, 52 kiloetan. Euskadiko Txapelketarako sailkatu. Inaki Lakunzak ere zilarrezko domina eskuratu zuen 50 kiloetan, lan bikaina eginez, ippon bidez irabazi baitzituen borroak. Mikel Asensiok, bere aldetik, lan ederra egin zuen, ippon bidez borroka garrantzitsuenak eskuratu, baina finalean ezin izan zuen urrea lortu, eta zilarrekin konformatu beharra izan zuen. Asensio ere Euskadiko Judo Txapelketan lehiatzeko aukera izango du.



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak SM
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Eneritz Maiz
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza. Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldean.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aitzondo@hitza.info
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info
Ibarra: 687 410 118. ibarra@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leitza: 687 410 118. leitza@hitza.info

Tolosa Herria Hedabideak SM-ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



Galtzaurdi euskara taldea



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduña, Albiztur, Alegia, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeak, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**



Joxe Gurrutxaga, Ramon Labaien, Antton Izagirre, Maria Luisa Castro eta Ibai Iriarte, plaka bistaratuta. A. IMAZ

Errepublika garaiko udal korporazioa eta langileak omendu dituzte, Tolosan

Tolosako Foro Errepublikanoak eta udalak elkarlanean, plaka bat jarri dute udaletxearen sarreran

Erredakzioa Tolosa

Tolosako Foro Errepublikanoak antolatuta, pasa den aste osoan, II. Errepublikaren 82. urteurren gogora ekartzeko Aste Kultural Errepublikanoa ospatuzuten, Tolosan, udalaren laguntzarekin. Ekimenen artean, larumbatean, udaletxe sarreran jarri duten plaka bistarazi zuten.

II. Errepublika garaiko udal korporazioa eta langileak omendu zituzten, eta garai hartan udaletxe lanean ibilitako Maria Luisa Castro tolosarra ekitaldian izan zen. Agurra dantzatu ostean, erakutsi zuten plaka, eta honakoa dio: «Errepublika garaiko azken korporazio demokratikoari. Herriaren askatasunaren, errepublikaren eta demokraziaren alde zeuden Antonio Maria Labaien alkateari, zinegotziei eta udal langileei. Gaurko tolosarrok beraien duintasuna eta oroimena aldarrikatzen dugu».

Aste Kultural Errepublikanoa-



Mikel Errazkin anoetarrak aurkeztu zuen liburua, batzar aretoan. A. IMAZ

ren barruan *Memoriaren izenak* liburuaren gaztelarazko bertsioa aurkeztu zuen liburuaren egilea den Mikel Errazkin anoetarrak, udaletxean. Herritar ugari elkartuz zen batzar aretoan egin zen ekitaldian.

Lore eskaintza eta bazkaria Frankismoak erail, kartzelaratu, torturatu, erbestera eta errepresaliatu guztien oroimenez, igande eguerdian, hilerrian jarri dagoen monumentuaren aurrean elkartu ziren lore eskaintza egiteko.

Ondoren, udaletxean bandera errepublikarra igo zuten, eta mu-

sika bandak kontzertua eskaini zuten. Jarraian, herri bazkaria egin zuten Zerkausion, eta aste osoko egitarauari amaiera eman zioten Tolosako Foro Errepublikanoako kideak.

■ **Bideoa.** Ikusi, pasa den larunbatean, Tolosako udaletxean izan zen ekitaldia, eta kanpoan egin zuten plakaren bistaratzea.



Agenda

GAUR

DEIALDIAK

■ **Amasa-Villabona / Zizurkil.** Arropa birziklatua egiten ikasteko ikastaroa antolatu dute bi udal. Izena hildaren 30a bitartean eman daiteke, eta ikastaroa maiatzaren 6tik 24ra bitarte izango da, 17:00etatik 20:00etara.
■ **Amezket.** Bartolome Deuren kalea itxita egongo da gaur, kalean egin beharreko obrak direla eta.
■ **Baliarrain.** Maiatzaren 1ean, urtero bezala, Txekor jatea egin dute Baliarrainen. Txartelak salgai jarri dituzte 25 eurotan Zartagi jatetxean. Txartelak erosteko azken eguna hilaren 24a, asteazkena, izango da. Herri kirolak izango dira bazkariaren aurretik.
■ **Bidegoian.** Saiaz Mankomunitateak antolatutako zaintza ikastaroan izena eman daiteke, baina horretarako epea bihar bukatuko da. Ikastaroa hilaren 19an hasiko da, eta izena saiaz@udal.gipuzkoa.net helbide elektronikora idatziz edo 943 68 11 28 telefono zenbakira deituz eman daiteke.

■ **Ibarra.** Alurr dantza taldeak nahi duen orori zuzendutako dantza ikastaroa egingo dute. Asteartero izango da, eta gaur, 20:45ean hasiko dira 22:00ak bitarteko saioekin. Lokal zaharrean elkartuko dira.
■ **Irura.** Kirol Astearen barruan, 16:30ean, Erretirodunen ibilaldi neurtua izango da. Ondoren, parte hartzen duten guztientzat merienda izango da.
■ **Tolosa.** Nikaraguaren aldeko merkatu txikia antolatu du Tolosako Amartz auzo elkarteak. Amartzko auzo lokaletan egongo da zabalik merkatu txikia, 16:00etatik 19:00etara, ostirala bitartean.

Farmaziak

GAUR

■ **Tolosa.** Egunekoa eta gauekoa: Bengoetxea, E. Kale Nagusia, 7. Telefonoa: 943 67 06 48.
■ **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

Agurak



Zorionak!

Unai Urkizar Landa. Gaur 6 urte. Zorionak eta muxu goxoak familiaren partetik.

●● **agurak**

AGURRAK
943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info

Mauka berria

Aurpegiko tratamendu osoa

Prezioa 27€

LUR ESTETIKA
Uistin kalea, 19
LASARTE - GIPIZKOA
Tel.: 943-36 17 93

www.mauka.eu

berria taldea